



BEGIRALEAK
B.P.211
DONIBANE LOHIZUNE
64500 SAINT-JEAN-DE-LUZ
Tél. 05 59 51 13 90
E-mail : begiraleak@wanadoo.fr



1 Eskualduna naiz eta

Hitzak : G.Lantziri

Musika :B.Sarasola

Eskualduna naiz eta Euskadi dut maite Horgatik kartzelara eremanen naute.

Makilez jo nautenak elizan bai dirade
Nere oinaze minen eskaintzen ba ote ?

Eskualduna naiz eta ...

Tiroz hilen naute errana bai dautate
Eta gauean lurrez estaliko naute.

Eskualduna naiz eta ...

Kartzela leihotik izar bat da ageri
Hura biziko deno Euskadi da biziko.

Eskualduna naiz eta ...

Basauri espetxean zilo bat da ageri
handik ageri dira hamar bat gudari

Eskualduna naiz eta ...

3 Papo gorri

Beñat Sarasola

Papo gorri xuri xori pollit batek goizian ekarri zaudan berria bapo gorri xuri xori pollit batek goizian libratu zela herria.

Bai estekak autsi kanporat jauzi
abertzalia
bai, itzala utzi denetan argi
gure aberria
langileak nausi dirade jarri
libertatian
gure lana hori gureaz guri
diote denean.

Papo gorri ...

Atzerria utzi herrian bizi
dago gaztia
kanpoko nausi zaio itsusi
bota du etsaia
oi bandera xuri berde ta gorri
zeru gainean
herri ttipiari eman du bizi
handien artian.

Papo gorri ...

2 KIMU BAT ZUHAITZAN *Benito Lerxundi* *Musika : Allan Rankin Hitzak : Jon Maia*

Gogoan dut goiz hura negua zen
elur giro ta izotz
jende guztia triste ta goibel
aurpegi, gorputz ta bihotz...

Nire gitarrarekin irten nintzen
natura ilun hartara
eta orduan ikusi nuen
kimu bat zuhaitzan.

Zuhaitzpe hartara joaten hasi nintzen
neguaren ekaitzan
kantatzera irten zela
kimu bat zuhaitzan.

Kimu bat zuhaitzan, kimu bat zuhaitzan han sortu baitzan, salba gaitzan kimu bat zuhaitzan

Negu beltz luze hura igaro zen
urtu ziren izotzak
udaberriak askatu zituen
ibaiak eta bihotzak.

Eta nola indarrak hartzen zituen
argia ta ekaitza
eta berdetuz loratu zen
kimua zuhaitzan.

Kimu bat...

Geroztik negurik beltzenetan
dena ilun denean
gogoan dut kimuaren jaiotza
gure lurraren minean.

Eta nola indarrak hartzen zituen
argia ta ekaitza
negu beltzean loratu zen
kimua zuhaitzan

1/ Kimu bat zuhaitzan ...

2/ Kimu bat zuhaitzan, kimu bat zuhaitzan han sortu baitzan , salba gaitzan kimu bat zuhaitzan X 3

4 Udazken koloretan

Benito Lerxundi

Udazken koloretan
landen lurrinak zeharkatuz,
hitaz oroit eta higan nauk.

Udazken koloretan
landen lurrinak zeharkatuz,
hitaz oroit eta higan nauk.

Zuhaitz biluziaren
gerizpean orpondoa,
orbelaren hilobi,
horiz eta gorriz
dena lokarturik,
dena lokarturik.

Eskuratu hostoa
xume bezain eder,
hain soila bere heriotzean,
zuhaitz guztiaren
bizkortasunez hain betea,
non erortze honen
duintasunak
hiri kantatzera naraman.

Berriro zuhaitzari
so natzaio, kezkatu ote?...
joate askearen
oparotasunean,
betikotasunaren irria zirudik.
irria zirudik.

Gatibu naukan denborak,
bere baitan egositako
ametsetaz isekaz
bailegoan.

Udazken koloretan,
landen lurrinak zeharkatuz,
hitaz oroit eta higan nauk,
hain soil hire heriotzean,
hain xume, adiorik gabeko
partitzean.

5 Arratsalde honetan

Sorotan bele

Itxaroten ari gera
arratsalde honetan
zerbait aukeztekotan
jende honen aurrean.

Hemendik ateratzeko
kanta berri baten bat
zuek ez aspertzeko
arratsalde honetan
honetan, honetan, honet-a-an...

Laupabost akorde jota
kitar zahar honekin
dantatzeko doinua
ez dugu besterik.

Bi laguneko koadrila
izerdi patsetan
nahiko izango dira
arratsalde honetan
honetan, honetan, honet-a-an...

Taupadetan dut bihotza
dirua galtzetan
dantza egiteko gogo
daramat zainetan.

Kitar binbolin doinuak
jarraituz badaukat
dibertitzako gaia
arratsalde honetan
honetan, honetan, honet- a-n...

7 TXATXAMATXULINATXU

Mikel Urdangarin

Txatxamatxalinatxu jaio zan urtian
herria ta kofradia hasarratu ziran x2

Tirikitrauna beltza morena
ontza bat txokolate goizian onena x2

Txikia izan arren izan leike abila
Biba Elantxobeko tanbolintxerua x2

Tirikitiena beltza morena
ontza bat txokolate goizian onena x2

6 Pello Josepe

*Juan Francisco Petriarena
Recondo Xenpelar (1835/1869)*

Pello Joxepe tabernan dala
haurra jaio da Larraulen (Bis)
etxera joan ta esan omen du:
-Ez da nerea izanen,
beraren amak topa dezala
haur horrek aita zein duen.

Hau pena eta pesadunbria!
Senarrak haurra ukatu (Bis)
Pello Joxepe bihotz neria
haur horrek aita zu zaitu
haur horrentzako beste jaberik
ezin nezake topatu.

Zure semia besuan daukat
senarra aldamenian (Bis)
orain denborik eztaukat eta
zuazkit ordu onian
neronek abisatuko zaizut
garaia datorrenian.

Fortunoso nintzela baina
ni naiz fortuna gabia, (Bis)
abade batek eraman dizkit
umea eta andria:
haurra berea bazuen ere
andrea nuen neria.

Patzientzia hartu bihar da
munduan Pello Josepe, (Bis)
andria ere zuria izanda
haurra bestena diote;
gizonen faltan igarotzen da
basoan zenbait larrarte.

8 HAURTXO TTIPIA

Haurtxo ttipia seaskan dago
Zait iduri aingerua, lo.
Haurtxo ttipia seaskan dago
Zait iduri aingerua lo
Ene maitia, ene pottolo,
Egina guzu, lo!

Xakur haundia etorriko da
Zuk ez baduzu egiten, lo
Xakur aundia etorriko da
Zuk ez baduzu egiten, lo
Ene maitia, ene pottolo,
Egina guzu, lo!